

KARTZELA GENERO-ERAKUNDE BEZALA: GENERO-BEREIZKERIAK, ERRESISTENTZIA-PRAKTIKAK ETA AGENTZIA EUSKAL HERRIAN ESPETXERATUTAKO EMAKUMEEN ARTEAN

Tesiaren egilea: Maria Ruiz Torrado

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

Tesi-zuzendaria: Mari Luz Esteban Galarza

Tesiaren laburpena:

Kartzela genero-erakunde bezala: genero-bereizkeriak, erresistentzia-praktikak eta agentzia Euskal Herrian espetxeratutako emakumeen artean (2016) doktorego-tesiaren ikerketa-objektua honakoek osatzen dute: kartzelatutako emakumeek giltzapean izandako bizipenek, jasandako genero-bereizkeriek eta gauzatutako erresistentzia-praktikek; betiere, kartzela genero-erakunde bezala hartuta, genero sortzen eta birsortzen duen heinean.

Zehazki, ikerketak abiaburutzat du genero-azterketarik gabe ezin dela espetxe-sistema sakonean ulertu; alde batetik, genero-eredu hegemonikoen ondorioz, emakumeek eta gizonek ezberdin bizi dutelako giltzaperatzea, eta, bestetik, kartzela-sistema errotik guztiz sexista, androzentrikoa eta diskriminatzailea delako, genero-rol tradizionalak zein erlazio hierarkikoak indartzen dituen gero.

Hori horrela izanik, lehenik eta behin, ikerlan honek emakume presoen bizipenak, ibilbideak, aldaketak nahiz ikaskuntzak aztertzen ditu; bigarrenik, genero-desberdinkeriak jorratzen ditu; eta, azkenik, itxialdiak dakartzan zailtasunei eta mugei aurre egiteko erresistentzia-praktikak lantzen ditu, agentziaren gaiari hartuta. Azken batean, ikerketa honek ez du espetxealdiaren baitako genero-zapalkuntza edota izaera murriztailea inolaz ere baztertu nahi; alabaina, ezta emakumeek egoerari nola edo hala aurre egiteko gauzatutako eginahalak ukatu edo gutxietsi nahi ere —horien nolakotasuna zeinahi ere izan—. Horrenbestez, doktore-tesiak hiru ardatz horietan sakontzen du, Hego Euskal Herrian kartzelatutako emakumezko preso sozialen nondik norakoak ikertuta.